

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	KONTABILITATEKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0516		
Lanbide-arloa	Administrazioa eta kudeaketa.		
Lanbide-eremua	Administrazioa eta ikuskapena		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Kudeaketa administratiboko jarduerak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Kontabilitate-erregistroak	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kontabilitate-plan orokorra	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC981_2 KONTABILITATE-ERREGISTROAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB2, LB3, LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Kontabilitateko aplikazio informatikoak erabiltzea, eta transakzio ekonomikoen erregistroarako behar diren eragiketak erregistratzea.
- EI1.1 Erabiltzen diren aplikazioen funtzioak eta prozedurak identifikatzea.
- EI1.2 Kontu eta kontzeptuen kodeketa, formatua, onartutako digitu-kopuru maximoa eta besterekin erlazionatuta, aplikazioaren ezaugarri garrantzitsuenak zehaztea.
- EI1.3 Aplikazioan aurrez definitutako idazpenek izan ditzaketen formatu posibleak azaltzea.
- EI1.4 Kasu praktiko simulatu batzuetan, ziklo ekonomiko bateko eragiketei buruzko dokumentazio behar bezala zehaztua emanik:
- Kontu-plana sortzea.
 - Aurrez definitutako idazpenak sortzea.
 - Kontabilitate-erregistroak egitea, merkataritza-dokumentuen eta emandako informazioaren arabera.
 - BEZaren liburuei dagozkien eragiketen intsuldaketa egitea.
 - Ziklo ekonomiko batean egindako erregistroen laburpenak prestatu eta inprimatzea (egunkaria, egiaztapen-balantzea, kontuen saldoak).
 - Kontabilitate-planeko kontuei baja ematea.
 - Aplikazioaren datu-basean aurrez definitutako kontzeptuei eta idazpenei baja ematea.
 - Segurtasun-kopiak egitea.
 - Transakzio ekonomikoen kontabilitate-erregistroan ardurak eta konfidentzialtasunak duten garrantzia eta printzipio horien aurkako jarduerak dituzten ondorio negatiboak azaltzea.

Edukiak

1. Kontabilitateko programak.

- Kontabilitate-programen egitura.
- Ezaugarriak, funtzioak eta prozedurak.
- Aplikazio informatikoan enpresen alta egitea eta haiei dagozkien datuak.
 - Enpresa berri bat sortzea.
 - Enpresari buruzko datuak.
 - Datuak aldatzea.
- Kontuak.
 - Enpresako kontu-plana sortzea.
 - Kontuen altak egitea.
 - Kodetzea.
 - Azpikontuak.
 - Aldatzea.
 - Ezabatzea.
- Aplikazio informatiko eguneratuak instalatzea eta erabiltzea.
- Segurtasun-kopiak egitea.

2. Kontabilitate-erregistroa, aplikazio informatikoen bidez.

- Kontabilitate-datuak aplikazioan sartzea.
- Idazpenen tresnak.
 - Sarrera.
 - Ezabatzea.
 - Birzenbakitzea.
 - Aldatzea.
 - Kopiatzea.
 - Egiaztatzea.
- BEZa automatikoki kalkulatu ahal izateko idazpenak sartzea.
- Kontabilitate-liburuak.
 - Liburu egunkaria lortzea.
 - Liburu nagusia lortzea.
- Enpresako ohiko eragiketetarako aurrez definitutako idazpenak erabiltzea.
 - Erosketa-eragiketetarako aurrez definitutako idazpenak.
 - Salmenta-eragiketetarako aurrez definitutako idazpenak.
- BEZaren erregularizazioa edo likidazioa.
 - Jasandako BEZaren liburua lortzea.
 - Jasanarazitako BEZaren liburua lortzea.
- Baturen eta saldoen egiaztapen-balantzea. Balantzea lortzea.
- Ekitaldia ixtea.
- Urteko kontuak lortzea.
- Kontabilitatea irekitzea.
- Aplikazioan kodetutako kontuak eguneratzea.
- Aurrez definitutako idazpenak eta kontzeptuak eguneratzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Kudeaketa administratiboko jarduerak